ZM

ZORROTZ MORROTZ

44. ZENBAKIA. 2017KO MARTXOA

ÁLVARO SALDAÑA ETA AROA MIRÁS

METROPOLITANO HOCKEY TALDEKO JOKALARIAK ETA ENTRENATZAILEAK

ZAZPI LANDA IKASTETXEKO GURASO ELKARTEA

Allianz

Menfer Insurance Group S.L.
Geltoki bidea 1, behea
48013 Zorrotza
Tel. 946551773
Sakelakoa. 691218922
E-mail: valerio.merino@allianzmed.es

Etxebizitza erosteko eta hura finantzatzeko prozesuan lagunduko dizugu.
Kutxabanketxebizitzagida.eus

kutxabank

kutxabank ORAIN

kutxabanketxebizitzagida.eus
· Kontuan hartzeko alderdi garrantzitsuen zerrenda.
· Gastu-simulagailuak, kuota, hipoteka-konparatzailea.
· Intereseko estekak.

Etxebizitza Gida · k · Kutxabankek

Kutxabank SA, Kale Nagusia 30-32, Bilbo, IFK: A95653077. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan izena emanda. Tomoa: 5228, Liburua: 0, Orria: BI-58729, Folioa 1, Inskripzioa: 1.

GELTOKIA LURPERATU orain!

Coordinadora de grupos de Zorrotza
ZORROTZAKO TALDEEEN KOORDINAKUNDEA

zorrotza
auzo elkartea
asociación vecinal

ESTACIÓN SOTERRADA ¡ya!

FEVE geltokia eta giza-hezkuntza plana

Lehenik eta behin, pasa den abenduko istripuan bizitza galdutako bi auzokideen familiekiko gure dolumin eta elkartasuna adierazi nahi dugu. Honen ondoren, izugarrizko garrantzia duten bi gai:

Lehenik eta behin, FEVE trenbideko pasaguneen lurperatzea lortzeko garatzen ari garen kanpaina: manifestaldiak, agerraldiak, leiho, atalondo, eta saltokietan jartzeko kartelak, Bilbao Ria 2000ri bidalitako idatzia, hainbat bilera eta kontaktu, otsailaren 23ko udalbatzan aurkeztutako mozioa eta nola ez, lurperatzea errealitate bat izateko denboran zeharreko lan planaren diseinua.
Bestetik, auzoarentzat giza-hezkuntza plan bat martxan jartzen ari gara. Garrantzi handikoa deritzogun plan honetan Auzo Mugimendua, Eusko Jaularitzaren Hezkuntza Saila eta hainbat udal sail parte hartzen ari dira.

Adi egon beraz. Guztiontzat auzo hobe bat izatea lortzeko, parte hartzea ezinbestekoa da.

zorrotza auzo elkartea

HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ!!

ZM zure e-postan jasotzeko, bidali mezu elektroniko bat **zmorrotz@gmail.com** helbide elektronikora, gaiaren laukian **"harpidetza"** jarriz

ZM
ZORROTZ MORROTZ

Zorrotzako kultur aldizkaria
44. zenbakia. 2017ko martxoa

Argitaratzen du:
Zorrotzako Euskal Txokoa

AEK euskaltegia
Zalbidea, 7 behea
48013. Zorrotza. Bilbo
Emaila: **zmorrotz@gmail.com**

facebook.com/ZorrotzMorrotz
@zorrotzmorrotz

Koordinazioa: Aitor Marín

Diseinua eta maketazioa:
amc diseinua

Erredakzioa:
- Ibai Barrios
- Ainara García
- Igor Gutiérrez
- Haizea Olleta
- Aitor Marín
- Naroa Peña
- Iratze Pérez
- Zuriñe Vila
- Lorna Yáñez

Zuzenketak: Iñigo

Laguntzaileak:
- Karlos Rodríguez
- Manu Cobo
- Asier Urkiza

Inprimaketa: Arin Graf

zorrotzako euskal txokoa
Bilbao UDALA AYUNTAMIENTO
Zorrotz Morrotz aldizkariak Bilboko udalaren dirulaguntza jasotzen du

VíA gráfica
viagraficazorrotza@gmail.com
DiSeiNua

BAR RUDI
ATHLETIC CLUB BILBAO
MARADONA
CLARA CAMPOAMOR 2

Pausoz pauso FEVE trenbideak lurperatzeko ibilbidean

Aho batez onartu zen Auzo Elkarteak otsaileko udalbatzan aurkeztutako mozioa. Testuak Udalaren konpromisoa jasotzen du Sustapen Ministerioarekin eta ADIFekin gaiaren gainean bilera bat bultzatzeko eta ondorengo urratsen egutegia osatzeko. Bitartean, hainbat mobilizazio berri burutu dira eta batzorde berri bat sortu da auzoan mobilizazio era anitzagoak planteatzeko.

Igor Gutiérrez

FEVE lurperatzearen gaiak berri anitz utzi dizkigu azken asteotan. Hasteko, otsailaren lehen egunetan, Gumersinda González, abenduko istriputik bizirik ateratako emakumea, zendu zen. Berehala, Auzo Elkarteak elkarrateraratzea deitu zuen trenbide-pasagunean, familiarekiko elkartasuna agertu eta berriz ere lurperatzea aldarrikatzeko. Hala, hilaren 9an, bostehun bat lagun bildu ziren, trafikoa ordu erdiz moztuz, giroan tristura eta haserrea nagusi zirela.

Handik egun eskasera, otsailaren 15ean hain zuzen, Auzo Elkarteak proposaturiko asanblada irekia egin zen Auzo Etxean. Hitzaldi gela gainezka zegoen eta parte-hartzea aipagarria izan zen. Hainbat ekarpen egin zituzten bertaratutakoek mugimendua azkartzeko, honako esaldi honetan borobildu daitezkeenak: ezinbestekoa da borroka auzoko esparru eta giza-talde guztietara hedatzea eta mobilizazio era anitzagoak planteatzea. Helburu biei heltzeko, batzorde berria sortzea erabaki zen, Auzo Elkarteak berak zama osoa ez eramateko eta garrantzia ere baduten beste gaietaz arduratu ahal izateko. Hurrengo astean bertan sortu zen. Laster bere jardueraren berri emango dutela agindu zuten.

Bestetik, iragarri bezala, otsailaren 23an, Auzo Elkarteak mozioa aurkeztu zuen udal batzan. Zorrotzarekiko zor historikoa onartu du eta “lehentasunezko helburutzat“ jo du lurperatzea Udalbatzak. Testuak Udalaren konpromisoa jasotzen du Sustapen Ministerioarekin eta ADIFekin gaiaren gainean bilera bat bultzatzeko eta ondorengo urratsen egutegia osatzeko. Helegitea aho batez onartu zen eta alkateak berak biharamunean Espainiako Sustapen Ministroari gutun bat igorriko ziola agindu zuen denen aurrean, jakinaren gainean jartzeko. Bien bitartean, udaletxeko eskaileretan berrehun zorrotzar baino gehiago bildu ziren mozioa babesteko eta auzoaren indarra agertzeko.

Ondorengo aste eta hilabeteetan pauso gehiago ematen joango direla ziur gaude; espero dugu hurrengo alerako FEVEren lurperatzetik gertuago gaudela kontatu ahal izatea.

Gumersinda Gonzálezen familiarekiko elkartasuna agertzeko elkarretaratzea

Auzo-etxeko hitzaldi gela jendez lepo Auzo Elkarteak egindako asanbladan

Trenbideak lurperatzeko aldarrikapena agerian Clara Campoamor kaleko inaugurazio ekitaldian ere

Otsailaren 22an Juan Mari Aburto Bilboko alkateak, gainerako zinegotziekin eta gizarte elkarte eta auzoko elkarteetako ordezkariekin batera auzora heldu zen Clara Campoamor kalea inauguratzeko. Irudian ikus daitekeen bezala, alkatearen eta hedabideen presentzia baliatu zuen auzokide talde batek Feve geltokiaren lurperaketa eskatzeko.

Ekitaldian, Juan Mari Aburto Bilboko alkateak hiriko kale-izendegian andrazkoen izenak sartzearen garrantzia azpimarratu zuen, “gure kaleen izenetan emakumearen presentzia urria arintzen” laguntzen duelako. Izan ere, Bilboko kale-izendegian dauden andrazkoen 22 izenetatik, sei gaur egungo gobernu taldeak sartu du. “Zalantzarik gabe, kale izendegia nahiko itxita egon da andrazkoentzat historian. Hori dela-eta, Bilbok zor moral handia dauka emakumeekin, eta bereziki mugimendu feministaren izen berezi handi batzuekin. Horien artean, Clara Campoamorren izena nabarmentzen da. Sufragista historikoa eta aitzindaria, andrazkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunaren aldeko lan eskerga egin zuena”, erantsi zuen alkateak.

Mintzatu app-a aurkeztu zuten aek euskaltegian Darabilboren eskutik

Zorrotz Morrotz

Pasa den otsailaren 8an, arratsaldez, eta Darabilboren eskutik, Azkue Fundazioatik etorri ziren gurera Mintzatu app-a aurkeztera. Bertan euskaltegiko hainbat ikaslez gain, beste lagun batzuk elkartu ginen gure smartphone eta tabletekin aplikazio honi buruz apur bat gehiago jakiteko.

Zer da Mintzatu

Mintzatu euskaraz hitz egiten den munduko leku guztiak elkarlanaren bidez identifikatzea helburutzat daukan proiektua da. Horrela, gure hizkuntza partekatzeko leku berriak aurkitzen lagunduko dizu.

Zer egin dezaket Mintzaturekin?

Mintzatuk honako gauzetarako balio du:
Euskaraz mintzatzen den munduko lekuak bilatzea.
Euskaraz mintzatzen den leku berriak etiketatzea.
Zure kokalekua partekatzea eta euskaraz norekin hitz egiten duzun esatea.
Euskaraz hitz egiteko lagun berriak egitea.

Mintzatu erabiltzen hasteko, zure kontua sortu behar duzu. Zure kontua sortu duzunean, login egin ahal izango duzu aplikazioan eta lekuak etiketatzen hasi.

Mintzatuk euskaraz hitz egiteko leku eta persona berriak aurkitzen lagunduko dizu. Webgunetik edo zure mugikorretik bilaketak egin ahal izango dituzu kategoriaren arabera, lekuetan zein jendek 'check in' egin duen ikusi, beren adiskidetasuna eskatu, etab.

Animatu Zorrotzan euskaraz mintzatzen diren lekuak ezagutzen! www.mintzatu.eus.

Bere egoitzan Irisgarritasun Legea bete dadila borrokan jarraitzen du EneBizia elkarteak

Naroa Peña

Iragan urtarrilaren 26an, urtarrileko udalbatzaren egunean hain zuzen ere, Ene Bizia Elkarteko kideak Bilboko Udaletxearen aurrean elkarretaratze bat burutu zuten Zorrotzako Udaltegiko instalazioetan Irisgarritasun Legea betetzeko aldarrikatzeko.
Elkartea ez da geldi geratuko lortu arte, auzotar askorentzat ezinbestekoa baita.

Espero dugu Udaletik Irisgarritasun Legea betearaztea Zorrotzako Udaltegian dauden oztopo arkitektonikoak kenduz.

Soka kalea

Kale hau Geltoki bidean hasten da eta Fraijuanen amaitzen da. Izena 1969 urtean ipini zebien leku horretan sokak egiteko lantegia egon zalako; behar beharrezkoak garaiko untziola guztietan (Zorrotzan zegoen handi bet) untzien ekipamendurako, aize oihalak, lotureak eta abar. Azken urte hauetan aldaketa ugari izan dau kaleak, orain zabala, etxez beterik eta zuhaitzekaz dau.

Estibadores etxea botatzen

Estibadores etxea Soka kalean

Soka kalearen bukaera Frai Juan kaletik

PENA ATHLETIC ZORROTZA

BAR VENECIA

Espezialitateak:
Kafea, tortilla, tortilla beteak eta bestelako pintxoak

Abaro estrata 10

AUPA ATHLETIC

Ford

Taramona

ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75
Telefonoa: 94 442 44 68

TAILERRAK ETA ZERBITZUAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 75
Telefonoa: 94 442 17 12

Jai-Alai
kafetegia

Abaro estrata, 12
94 490 12 59

“Zorrotzaren falta dugu eta ez dugu gure burua beste leku batean ikusten”

URKO BILBAO ETA IKER ARANBERRI

Bizitokia: Illescas (Toledo)
Noiztik: 2016ko otsailetik
Adina: 28 urte
Lanbidea: Robotika industraileko programatzaileak

Lan egonaldia dela eta, urtebete daramate Iker Aranberrik eta Urko Bilbaok Illescasen, Toledoko herrian. Proeiktu profesional deigarri bat azaldu zitzaien eta auzoa uztea erabaki zuten... ahalik eta lasterren bueltatzeko asmoz

Naroa Peña eta Zuriñe Vila

Nolatan eta zergatik joan zineten Toledora?
Robotika industrial arloko enpresa batean egiten dugu lan. laz Toledoko herri batean proiektu bat atera zen eta hona etortzea proposatu ziguten. Hasieran zaila izan zen, baina guretzat aukera oso ona zenez etortzea erabaki genuen eta hemen jarraitzen dugu! Printzipioz urte baterako zen, baina epeak luzatu egin dira eta gero eta lan gehiago daukagu.

Ezberdina da bertako bizimodua auzokoarekin alderatuta?
Nahiko ezberdina da. Orain herri batean bizi gara. Pisu batean bizitzetik etxe batean bizitzera pasatu gara, auzoaren erdialdean bizitzetik herri txiki bateko urbanizazio batean bizitzera... beraz, aldaketa nabarmena izan da.

Gogorra egin zitzaizuen bertako lan eta bizi ohituretara moldatzea?
Urko Bilbao: Leku berri batera moldatzea gogorra egiten da beti, baina gogorrena gure familia eta lagunak gutxi ikustea izan da. Hala eta guztiz ere, zortea izan genuen txikitatik lagunak garelako eta biok batera etortzeak jasangarriagoa egin zituelako bizitako aldaketak.
Iker Aranberri: Nire neska-laguna hilabete batzuetan egon zen nirekin hemen, eta laguntza handia izan zen.

Nolakoa da zuen eguneroko bizimodua?
Denbora askorik ez dugu. Egun osoa lanean ematen dugu eta etxera heltzean, janaria, garbiketa, eta abar... egin gabe daukagu. Eguna azkar pasatzen da, konturatu gabe.

Zer da handik gehien gustatzen zaizuena? Eta gutxiena?

U.B.: Gehien gustatzen zaidana eta gutxien gustatzen zaidana gauza bera da: eguraldia. Tenperatura Euskal Herrian baino askoz altuagoa da eta euri gutxi egiten du. Egun batzuetarako hori ondo dago, baina hamar egun jarraian 40ºko tenperaturak jasotzen egon eta gero, euria eta tenperatura baxuagoen falta duzu. Horrekin lotuta, paisaia ere aipatuko nuke. Hemen eta inguruetako paisaian kolore berdea ez baita inondik ere ageri.

I.A.: Gehien gustatzen zaidana ingurua ezagutzeko aukera izatea da, Toledo eta inguruko herriak oso interesgarriak eta politak baitira.

Zerbaiten falta duzue faltan?

U.B: Bai, gauza asko, baina batez ere familia eta lagunak.

I.A: Faltan gehien dudana nire jendea da, Zorrotzan egiten nuen bizitza normala eta lasaia: nire lagunekin kaña batzuk hartzera joatea, anaiarekin Athleticen partidak ikustea, familiarekin egotea, egunero nire neskalaguna ikustea, txakurrarekin bueltatxo bat ematea... Mendia eta hondartzaren falta ere badut.

Zorrotzara maiz etortzen zarete?

Ez asko. Gure lan ordutegia dela eta asteburuetan, jai egun eta zubi gehienetan lan egin behar izaten dugu, beraz ezin gara askotan bueltatu. Hala ere, ahal izaten dugun guztietan, kotxea hartzen dugu eta Zorrotzara bueltatzen gara.

Eta bukatzeko. Zorrotzara berriro bizitzera bueltatzeko asmoa daukazue edo han geratuko zarete betiko?

U.B: Ahalik eta lasterren bueltatu ahal izatea da nire nahia, baina momentuz zaila ikusten dut. Hemengo proiektua bukatu ostean Alemaniara joateko aukera ere badago, beraz, ez dakit lanak nora eramango nauen.

I.A: Nire asmoa Zorrotzatik urrun ez joatea da. Denbora honetan faltan izan dut, eta beste leku batean ez dut nire burua ikusten. Zorrotzan edo inguruan egotea espero dut."

ZAZPI LANDA ESKOLAKO "LORONTXO" GURASO ELKARTEA

Seme-alaben eta gurasoen aldeko lanean elkarturik

Lana eta familia bateratzea geroz eta zailagoa den gizarte honetan, are zailagoa da ikastetxe baten seme-alaba eta gurasoentzat eskolaz kanpoko ekintzak antolatzea, ikastetxeko Zuzendaritzarekin bilerak izatea zentruaren funtzionamendua dinamizatzeko eta abar luze baterako denbora ateratzea. Lorontxo guraso elkarteko emakumeak, bai emakumeak soilik, horretan ahalegintzen dira aspalditik, urtez-urte jende berria erakarriz gainera.

Testua: Aitor Marín eta Iratze Pérez
Argazkiak: Lorontxo Zazpi Landa guraso elkartea

Aurten jende berria taldera sartzearekin batera, Taldeon Koordinakundean parte hartzen eta auzoko mugimedunan presentzia gehiago izaten ere hasi dira. Hamar pertsonak osatzen dute Zuzendaritza Batzordea. Astelehenero 15etatik 16.30era biltzen dira, baina "ez da nahikoa. Eskerrak whatsapp bilerak egiten ditugula" azaldu du Iratxe Eletxigerrak. "Gehienetan ordutegia askoz gehiago zabaltzen da ekintza, ekitaldi edota bilera guztiak kudeatzeko" baieztatu du Txus Vazquezek. Elkarrizketa eta hezkuntzako arlo guztiekin elkarlana dute oinarri elkartearen funtzionamendurako. Honela, Eskola Batzordean ordezkari bat dute gurasoen iritzia kontuan izateko erabakietan, baina eginbehar nagusia ikasle eta gurasoentzat ekintzak antolatzea da: aurten igeriketa, patchwork eta mintza praktika antolatu dute besteak beste. Etorkizunean eskaintza zabaltzeko ahaleginetan daude, judo taldea ateratzear dago, eta datorren ikasturtean Zorrotza Futbol Eskolaren bidez multikirola antolatuko dute. Ekintza hauen kostuaren zati bat edo osorik hartzen du elkarteak bere gain. Halaber, gabonetan, inauterian eta kurtso bukaeran jaialdiak antolatzen dituzte, non jokoak, puzgarriak eta hainbat ekintza izaten diren, eta umeak, gurasoak eta irakasleak elkarrekin abestu eta dantzatzen dute askotan.

Izen ematea borondatezkoa da, baina "funtsezkoa", zehaztu du Txusek. Bazkidetza kuota ikastetxean matrikulatutako seme-alaba kopuruaren araberakoa da: urtean 17 eurokoa merkeena eta 25 eurokoa garestiena. Honez gain, Bilboko Udala eta Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzak jasotzen dituzte "Aurten herri kirolak antolatu ditugu eta jarduera honek dirulaguntza Aldundiari ere eskatzeko bide ematen digu". Dirua ateratzeko bestelako baliabideak bilatzen dituzte, hala nola, loteria saldu edo iaz lehendabizikoz gabonetan antolatutako elkartasun-azoka jendeak emandako jostailuekin.

Urtero arbela elektroniko bat erosten dute ikastetxearentzat. "Lehenengo hiru arbelak Jaurlaritzak erosi zituen, baina orain murrizketak egin beharrean, inbertsioa eten du guztiz" dio

Iratxek. “Bi mila euro inguruko inbertsioa suposatzen digu” azaldu du Txus Vazquezek. Arbelarena inbertsio nagusia bada ere, bestelako gastuak ditu elkarteak. Adibidez, aurten Gure Lurra elkartea kontratatu du patioak dinamizatzeko. Astean birritan, eta jantoki-orduan euskara eta elkarbizitza sustatzeko asmoz, bi monitore jokoak, dantza, kirolak eta horrelako ekintzak antolatzen dituzte Lehen Hezkuntzako 2. eta 6. kurtso arteko ume ororentzat. “Egiten ditugun ekintzak guztientzat izaten dira, bazkideak izan ala ez izan” azaldu du Arrate Gómezek.

Azken bolada honetan oso garrantzitsua deritzoten gai bati heldu behar diote. Auzoko ikastetxe publikoen “degenerazioaz” arduratuta, Administrazio aurrean biltzen hasi dira hezkuntza eremu desberdinekin erlazionatuta dauden beste elkarte batzuekin: “Auzoko umeak kanpoko eskoletara joatearen zergatiaren gainean hausnartzen hasi ginen” dio Arratek. Honen aurrean, Hezkuntza Inspekzioak bultzaturiko proeiktu sozioedukatibo berria garatzeko bilerak burutzen hasi dira, Auzo Elkartea, Gure Lurra, auzoko ikastetxe guztietako guraso elkarteak, Margotu, EISE, Aek, eta Udal eta Gobernuko Hezkuntza Saileko ordezkarien parte hartzearekin. “Zer nahi dugun jakiteko eta gure ikastetxeetan ezartzeko lantaldeak egitea eskatu digu Udalak” azaldu du Iratxek. Derrigorrezko hezkuntza osorako planteatzen da proiektua. “Hausnarketa bidean gaude, eta hainbat aldarrikapen argi ditugu dagoeneko, adibidez doako autobusa auzoko behe partetik haurreskolaraino, giza baliabide gehiago, irakasleentzat egonkortasun handiagoa, lehen orduko ikasgela, eskola inklusiboa benetan bultzatzea...” zerrendatu du Arratek.

Haien jarduera guztiez informatzeko urtean bi asanblada antolatzen dute, kurtso hasieran eta bukaeran, eta horrez gain, Facebook orrialdea eta bloga dute sarean:
www.ampasietecampas.blogspot.com
Facebook: Ampa Lorontxo

TABERNA INDARRA
ATHLETIC CLUB BILBAO
Abaro estrata, 10

AUTO ESKOLA KAIKU
Liderra Ezkerraldean
Zorrotza Kastrexana, 1
Tlfno: 94 427 88 10

alboka taberna
Soka kalea, 5
Zorrotza
48013 BILBO
Tfno. 94 499 29 43

ÁLVARO SALDAÑA ETA AROA MIRÁS

Metropolitano Hockey taldeko jokalariak eta entrenatzaileak

“Hockeyari esker leku eta jende asko ezagutu ditut”

“Ardura handia da, baina gogotsu arituko naiz nesken taldea garatzeko”

Elite Ligako partidak jokatzeaz gain, Zorrotzako polikiroldegiko hockey pistan entrenatzen dute euskal talderik garrantzitsuena den Metropolitano Hockey taldeko kirolari guztiek. Agian pista gurean egoteagatik, gero eta auzotar geniago bereganatzen ari da kirol minoritario honetako kluba, ez soilik entrenatzeko eta jokatzeko, baita Zuzendaritza Batzordean ere.

(Argazkian: Gotzone Aranzamendi, idazkaritza arduraduna; Aroa Mirás jokalaria eta behe-mailako entrenatzailea; Rafa Saldaña, presidenteordea; Álvaro Saldaña, Elite Taldeko jokalaria eta behe-mailako entrenatzailea; eta Estibaliz Balbás, behe mailetako arduraduna

Testua eta argazkiak: Aitor Marín

Duela hogei urte inguru, Artxandako Nogaro izotz-pista itxi zenenan, bertan jokatzen zuten jokalariek Metropolitano patinaje kluba sortu zuten. Deustuko euskalduna zubipean dagoen pistan entrenatzen hasi ziren eta han ditu hastapenak taldeak, Zorrotzara etorri baino lehen.

Gaur egun ia ehun kirolari ditu Metropolitano taldeak, horietako hogei bat gure auzoko bizilagunak izanda. Entrenatzeko instalazioak auzoan egoteak eta ahoz-ahokoak horretan lagundu dutela uste du Rafa Saldaña auzoko bizilaguna eta klubeko lehendakariaordeak. Zorrotzakoa eraiki arte, Bilbon ez zegoen itxitako linea-hockey pistarik. Nolakoa eta Munduko Txapelketaren egoitza izateko eraiki zen Zorrotzako pista. "Bilbainada galanta" izan zen Saldañaren hitzetan. "Europako hiru onenetarikoa da. Izotz-hockey pista baten antza handia dauka." 2007ko Munduko Txapelketa bukatu zenean, Metropolitano taldeko arduradunek Bilbao Kirolak pistaren jabea denarekin akordioa sinatu zuten kirol hau Bilbon garatzeko.

Maila guztietako kirolariak ditu Metropolitanok: prebenjamin kategoriatik hasita (9 urtetik beherakoak) benjamin, alevin, infantil, juvenil, junior eta senior mailara heldu arte. Senior bi talde aipatzekoak dira, Estatuko Liga Éliten bat eta Urrezko Kategorian bestea, "futbolean Lehenengo eta Bigarren Maila liratekeenak hurrenez hurren". Saldañak adierazten duenez: "jokalari oso gazteak ditugu, taldea sostengatzen duten hiru atzerritarrak konplementatzeko. Jokalari atzerritarrek duten kalitate plus hori behar dugu mailari eusteko, baita hemengo gure jokalariak hobeak egiteko ere".

Urtero behe-kategorietako talde bat estatu mailan antolatzen den Espainiako txapelketara bidaltzen dute. Alebinen txanda da aurten. "Arrazoi ekonomikoengatik talde bakarra izan behar du, bidaiak eta estantziak klubarentzat suposatzen dituzten gastuengatik. Proiekzio gehiago edo aukera hori gehiago hazteko hoberen baliatu dezakeen taldea bidaltzen du Zuzendaritza batzordeak" azaldu du Saldañak. Partaideen kuotak dira Metropolitanoren diru-sarrera nagusia. Kirolari guztiek klubaren kuota ordaindu beharra dute, Senior Elite taldekoak barne. Horretaz aparte, Bizkaialde elkartearen eta Bilbao Kirolak-en dirulaguntza jasotzen dute. "Eskertzekoa litzateke sponsor gehiago egotea".

Neskentzako taldea ere garatzen hasi dira. Senior mailatik aurrera, ezin dira neskak eta mutilak elkarrekin lehiatu estatu mailan. Zorionez, Euskadin Liga Senior mistoa ere badago. Aroa Mirásen hamasei urteko gaztearen inguruan sortuko da Emakumezkoen Metropolitano taldea. "Aroa kapitaina eta entrenatzailea izango

da. Etorkizuneko erronka nagusia da klubarentzat. Goiko mailetan gehienak mutilak dira Aroa izan ezik. Behe-mailatan aldiz, erdibanatuta dago" azaldu digu behe-mailak garatzeko arduraduna den Estibaliz Balbásek.

Bai Estibaliz, bai Gotzone Aranzamendi, idazkaritza arduraduna, biak semealabengatik hurbildu dira kirol honetara. Sei urte zituela, eskolaz kanpoko patinaje ekintzan izena eman zuen Estibalizen semeak: "Monitoreak Metropolitano taldeko jokalariak ziren eta partidak ikustera gonbidatu gintuzten. Liluratuta geratu ginen." Gotzone eta bere alaba den Aroa berriz, bere iloba Ibaik hurbildu zituen taldera. "Aroak oso gustukoa zuen, eta partiduetara etortzen ginen. Neska bakarra izanik gehiago kostatu zitzaion animatzea, baina gaur oso gustura dago eta izena ematera behartu ez izana leporatzen dit batzuetan!" dio Gotzonek.

Sare sozialetan oso aktiboa da taldea, adibidez, auzoko facebook talde ospetsu batean, eta etorkizuneko proiektuen artean, ezin ahaztu udan antolatuko duten umeentzako hirugarren campusa: "Aurreko bietan, guztira 70 ume inguruk hartu zuten parte, horietako asko Zorrotzakoak. Auzoan entzuten dugunaren arabera, aurtengoa ere arrakastsua izango delakoan gaude" pozik baieztatu du Balbásek.

Noiz eta zergatik hasi zinen Metropolitano taldean eta linea-hockeyan?
Igeriketa, saskibaloia, eta hainbat kiroletan frogatu ostean, lehengusua eta lehengusinak taldean zeudenez, hemen hasi nintzen, eta orduan benetan gustukoa nuen kirola hockeya zela jabetu nintzen. Patinatzea oso gustukoa dut, eta nahiz eta entrenatzen ordu asko sartu behar ditudan, gustura jarraitzen dut hemen.

Zenbat ordu entrenatzen duzue?
Astero ordubeteko hiru saio izaten ditut eta beste bi ordu Zorrotzan txikitxoak entrenatzen.

AROA MIRÁS

"Hemen oso minoritarioa da emakumezkoen hockeya"

Horretaz aparte, Bilboko eskoletan, umeekin ere, ordu bana beste bi egunetan.

Hockeyetik bizitzea posiblea al da?
Hemen oso zaila da. NHLan jokatuta agian... Baina hemen oso, oso zaila da. Garatua ez dagoenez ia dirurik ez dago kirol honetan.

Juvenil mailara heldu zara. Ezin zara Senior taldera pasatu Estatuko Ligak mutilak eta neskak bananduta lehiatzera behartzen zaituztelako. Entrenatzaile titulua atera duzu nesken taldea garatzeko. Erronka ez da makala...
Ardura handia da. Ez dakit zelan aterako den... baina oso pozik eta gogotsu hartzen dudan ardura da zalantzarik gabe.

Nolakoa da nesken hockeyaren egoera?
Egia da gure taldean neska asko dagoela, baina oro har ume txikiak dira. Estatu mailako beste leku batzuekin alderatuz gero, hemen oso minoritarioa da emakumezkoen hockeya.

ÁLVARO SALDAÑA.

“Lehen mailari eta sasoiari eusteko konstantzia eta lan asko behar da”

Noiz eta zelatan hasi zinen hockeyan?
2007. urtean, bederatzi urte nituela hasi nintzen. Zazpi Landa futbol taldean hastekoa nintzenenan, hemen Metropolitanon zegoen lagun batek etortzeko eta saiatzeko esan zidan. Denek egiten zuten futbola... Ondo pasatzeko eta kirola egiteko modu ezberdina zela pentsatu eta probatu nuen. Eta hemen jarraitzen dut.

Zer da hockeyan gehien gustatzen zaizuena?
Kirol famatua ez denez, ez dago talde askorik eta ez dago, adibidez, futbolean egon daitekeen lehiarik. Horregatik, lan eginda, errazagoa da talde handi batera heltzea. Bidaiatzeko eta lekuak eta jende ezberdina ezagutzeko aukera eman dit eta hori da gehien gustatzen zaidana. Alde txarrean, mailari eusteko beharrezko entrenamenduek ikasteko edo aisialdirako denbora asko kentzen didatela esango nuke.

Zenbat ordu entrenatzen duzu?
Astero ordu eta erdiko lau entrenamendu saio izaten ditut jokalari gisa, eta txikitxoak entrenatzen ordu eta erdi gehiago ematen dut. Denbora asko da, baina lehen mailan gaude eta maila eta sasoiari eusteko konstantzia eta lan asko behar da.

Zer esango zenioke hockeyan hasteko zalantzatan dagoen ume bati?
Kirol polita eta azkarra dela. Lan eta entrenamenduarekin, dirurik ez da irabaziko, baina oso esperientzia aberasgarriak bizi daitezke, leku askotako jendea ezagutu...

Non ikusten duzu zeure burua hemendik urte batzuetara? Noraino heltzea gustatuko litzaizuke?
Espainiako selekzioarekin entrenatzen egon naiz batzuetan, baina momentuz ez dut lortu hain goraino heltzea. Benetan gustatuko litzaidake, baina lortzen ez badut, hockeya ezagutarazten laguntzea gustatuko litzaidake, kirol honen garapenerako neska-mutilak entrenatzen, adibidez. Oso kirol ederra da eta gauza asko ikas daitezke kirol honetatik.

EUSKAL PRESO ETA IHESLARIAK
ETXERA
GORA HERRIAI
independentzia! SOZIALISMOA!
ASKABIDE kultur elkartea Zorrotza
Frai Juan 20 • Tel: 688 855 648 • askabidezorrotza@gmail.com

Hanburgesa berezia

Osagaiak:
Txahal haragia,
uhaza,
tomatea,
tipula,
gazta,
arrautza frijitua
hirugiharra
eta saltsa arrosa

Artisau ogi artean, momentuan plantxan egindako hanburgesa gozoak!.
On egin

Zailtasun maila	Erraza

Prezioa: 5 €

TABERNA AITOR



Zorrotzan orain dela hogeita lau urtetik, Josek eta Juan Carlosek aukera hau baliatu nahi dute Zorrotzan haienganako harrera eskertzeko.
Hasieran ez zekiten gauza nola aterako zen, baina Zorrotzan oso gustura daudela baieztatzen dute.
Ordutegia:
Astelehenetik ostegunera, goizeko 7etatik gaueko 23ak arte.
Ostiralero: goizeko 7etatik goizeko ordu 1a arte.
Larunbatero: goizeko 10:30etik goizeko 1a arte.
Igandero: itxita

Soka kalea, 11
48013, Zorrotza
Juancar eta Jose
Telefonoa: 94 482 07 96

Doinua:

Larogeita hamar urte

Ikasten

Zer nolako erraztasuna

maite zaitut esateko

sarritan gehiegi esan

gabeziak apaintzeko

maitasuna elkarrekin

baina ez lotuta egoteko

biok berdin izan eta

ez bestearen menpeko

adostasunak tarteko

jan ez gaitzan maitasunak

ametsgaizto ez bihurtzeko

lehenago errespetatu

geroago maitatzeko

bide luzea aurretik

maitasuna eraikitzeko

harremanen munduan ere

asko dugu ikasteko

Asier Urkiza

33 ezkil

Miren Gorrotxategi Azkune. Elkar. 2016. 200 orrialde.

33 ezkil (Zubikarai saria 2015), Miren Gorrotxategi Azkune: Garizmendi baserriko Ferminek, aitzurrean ari dela, burezur bat topatu du lurperatuta; lasterka deituko dio kalean bizi den Nestor semeari, baita honek Berta andregai ohi arkeologoari ere; hilotz hori ateratzera doazenean baina, desagertua da eskeletoa. Hortik aurrera, berriz, hildako gehiago, eta misterioa gero eta ilunago. Hildako zahar eta berriak, anaien arteko gorrotoak, belaunaldien arteko arrakalak, bikote barruko konpondu ezinak, droga, jokoa... Osagai horiek topatuko dituzu Augustin Zubikarai saria irabazitako eleberri beltz honetan, baita idazle berri bat ere, elkarrizketa nahiz flashback-etan bikain moldatzen dena, zer eta noiz kontatu ongi dosifikatuz, prosa arin bezain dotore batez.

Zea Mays: Harro.

(Garden records) 2016

Aurten hogei urte bete ditu Errekaldeko taldeak. Baina ospakizunak iaz hasi ziren estudioko lan berri baten argitaratzearekin batera, zortzigarrena alegia. Gainera, txalotzekoa da hasierako taldekide berak dituela 1997an lagunartean elkartu zirenetik: Aiora ahotsa, Piti kitarra, Ruben baxua eta Asier bateria. Aipatu behar dugu 90ko hamarkadaren bukaeran bi alditan aritu zirela gure auzoan, bata Herriko zaharrean eta bestea jaietan. Diska berrira bueltatuz, ohi bezala Urdulizeko Tio Pete estudioetan grabatu dute Jose Lastra euren zuzeneko teknikoaren gidaritzapean. Dave M. Allen aritu da ekoizle aurreko bi lanetan bezala. Diseinu ikusgarria lortu dute eta David Gonzalezek (Berri Txarrak, Cobra, PILT) zerikusi handia izan du azkeneko emaitzan. Nahiz eta funtsean rock talde bat izan, pop zertzeladak aurkituko ditugu hamabost kanta berri hauetan, betiko estiloa galdu gabe. Harro egotekoa da bai hainbeste urtez musikan zeresana ematen jarraitzea, dudarik gabe.

amc diseinua

Diseinu grafikoa:
irudi korporatiboa • web • komunikazioa ...

Kartelak, Aldizkariak, Katalogoak, Folletoak,
Kamisetak, Opari pertsonalizatuak...

www.amcdiseinua.net

Aurrekontuak eta info +: *Tel. 657 732 934 • aitor@amcdiseinua.net*

Zure iritzia jakin nahi dugu. Bidaliguzu zure artikulua **zmorrotz@gmail.com** helbide elektronikora gaiaren laukian "iritzia" jarrita. Eskerrik asko!

Otsailak 23: Zorrotzaren kolpea Bilboko udaletxean

Zorrotzako auzoak, Auzo Elkartea buru, aurrerapauso handia egin du otsailaren 23an FEVEko trenbidea lurperatzeko borrokan.

Izan ere, otsaileko udalbatzako ostegun horretan zorrotzarrok kolpe handia jo genuen mahai gainean, Bilboko Udaletxean bertan aurkeztu genuen mozioarekin, eta udaletxeko eskaileretan bildu zen jendetzaren babesa horren froga garbia izan zen. Nahiz eta ziur aski auzokide gehienentzat eguna eta ordua ezegokiak izan, asko eta asko hurbildu ziren auzoko batasuna eta indarra erakutsiz.

Udaletxearen barruan, Bilboko Udalbatzak aho batez onartu zuen Auzo Elkarteak defenditu zuen mozioa, zeinaren arabera Bilboko Udalak Zorrotzarekiko duen zor historikoa onartu duen eta FEVEko trenbidea eta geltokia ahalik eta lasterren lurperatzeko konpromisoa hartu duen.

Baina ez hori bakarrik, Udalak ADIF eta Sustapen Ministerioarekin biltzeko konpromisoa hartu du eta adierazi du inplikatutako beste erakundeekin bide beretik lan egiten ahaleginduko dela.

Azkenik, onartu den mozioak aipatu beharreko beste puntu garrantzitsu bat du, hain zuzen, Udalak informazio zuzena emango diola Auzo Elkarteari kontu honetan egingo dituen aurrerapenei buruz. Horrela, urratsez urrats jarraitu ahal izango dugu auzia nola gauzatuko den.

Otsailaren 23an kolpea jo du Zorrotzako auzo mugimenduak eta sekulako urratsa egin du aldarrikapen historikoa behingoz konponbidean sartzeko. Beraz, segi dezagun denok borrokan, tinko eta temati, erakundeen aurrean eta kalean ere bai, helburua lortu arte.

Karlos Rodríguez

EUSKARAREN ERABILERA EZ SEXISTA

Genero ez zehaztua duen pertsona talde bat izendatzerakoan, femenino eta maskulinoaren elkartea erabili behar da: seme-alabak, neska-mutilak, andre-gizonak, jaun-andreak... Honen ordez, askotan, izen maskulinoak (semea, mutila, jauna...) desegoki erabiltzen dira, bi generoak izendatzeko.
Adibide oker eta zuzen batzuk:
Zenbat seme dituzu? // Zenbat seme-alaba/ume dituzu?
Zure aitonek/aitek oparitu dizute? // Zure aitona-amonek/gurasoek oparitu dizute?

Guztiok gara euskaldun, guztiok anaiak gara // guztiok neba-arrebak gara
Eskolako maisu guztiak gonbidatuta daude // Eskolako maisu-maistra / irakasle guztiak gonbidatuta daude
Errege Katolikoen konkista // Errege-erregina Katolikoen konkista

Elkarketan, berez, silaba gutxiago daukan hitza aurrean doa. Hitz biek silaba kopuru berdina daukatenean, sarri ikusten da izen maskulinoa aurrean hizkuntzan eragiten duen androzentrismoari jarraiturik. Hala ere, hitz femeninoa aurrean joatea guztiz onargarria da.

SALAKETA ARGAZKIA

Iragan den urtarrilaren 11n lur jausi hau gertatu zen Zorrotzako Lorategia taldera igotzeko eskailera hauetan. Askotan helarazi zion Auzo elkarteak eremu honen egoeraren kexka Udalari, baina ez zen ezer egin. Zorionez ez da zauriturik egon. Antza, behin betiko konponketa egiteko estudio bat egiten dabil Udala. Espero dugu ahalik eta azkarren gauzatzea.
Talderako sarbideetan dauden arazoez ere luze aritu daiteke, baina hurrengo batzuetarako utziko dugu.

CAFÉ
LAS NAVAS
Pintxo gozoak egunero
Zorrotza Kastrexana errepidea 4

CaixaBank
Zeu zara izarra
Abaro estrata, 5
48013 Zorrotza (Bilbo)
Tel. 94 459 00 90
www.caixabank.es



Bidaiak: Ongi etorri errefuxiatuak!

Duela ia 17 urte, egunero Atxuri aldetik Zorrotzara abiatzen naiz. Hori da eguneroko nire bidaiatxoa. Bilbobusen noa. Aspaldi, gure artean ez dagoen lagun on batek esan zidan gure begien aurrean, gure etxean izan genezakela bidaiarik garrantzisuena Eta sentsazio horrekin hartzen dut 85a goizero.

Baina 2016ko uztailaren 14an, beste autobus bat hartu nuen. 6000km-ko bidaia egiteko asmoz, Bilboko Areatzatik Greziako Tesalonikaraino. Errefuxiatuen eskubideak defendatzeko Greziara joan ginen 121 euskaldun. Egitasmoa antolatzeaz Ongi Etorri Errefuxiatuak plataforma arduratu zen Bizkaian, Iruñea Harrera Hiria Herri Nafarroan, eta Gasteiz Irekia taldea Araban. Lehenengo egunean Bartzelonaraino joan ginen. Bertan, Poble Noun auzoan, estatuko beste “karabaneroekin” elkartu ginen, manifestazioa, ekitaldi politikoa eta kulturala egin genituen eta gau horretan hondartza ondoan zegoen polikiroldegian lo egin genuen.. Goizean izugarrizko gosaria prestatu ziguten, eta horrez gain nekazari talde batek oparitutako meloi eta barazkiekin Milaneruntz abiatu ginen.

Egun osoa autobusean pasatu arren,oso atsegina egin zitzaigun bidaia, izan ere gure artean hainbat ekintza egin genituen, besteak beste, bertsoak, olerkiak, eztabaidak.... Nahiz eta Milanera berandu heldu,bertan zenbait politikarik, artistak eta gizarte mugimenduetako partaidek ongi etorria eman ziguten.

Rimanflow-eko lantegia okupatuta zuten kideek bertara lo egitera gonbidatu gintuzten, eta nola ez hurrengo egunean beste gosari zoragarri batekin esnatu ginen. Tripa bete ostean, Anconarako (Italia) bidea hartu genuen, izan ere herritxo horretan Igumenitsara (Grezia) doan ferrya hartu genuen.

Behin Igumenitsara helduta, busean igo eta Tesalonikara (Grezia) abiatu ginen, han No Border kanpaldian parte hartzeko. No Border kanpaldian hainbat ekintza antolatu ziren, eta ekintza horien barruan , hiru bisita egin genituen: errefuxiatuen zentru kanpamenduetara, Greziako Paranesti eta Xanthiko atxilo zentroetara eta azkenengo bisita Atenasen izan zen, zehazki Espainiak duen enbaxadan.

Bisita hauetaz gain, “migrant pride” manifestazioan ere parte hartu genuen No Border kanpamenduan genduen petsona guztiok. Ez dut ukatzen «bidaia gogorra» izan zela, baina errefuxiatuekin gertatzen ari dena «tragedia bat» da, guztiz «iraingarria, mingarria eta onartezina», hori bai da gogorra benetan.

Egun, bidaiaren ostean, ez dut berdin jarraitzen. Uztaileko bidaiak zerbait “aktibatu” du nire barnean, errealitate hori aurrez aurre ezagutu ondoren. Pauso bat egin dut ,bereziki gure munduko bazterturiko gizataldeen alde, pertsona migranteak. Gainera, bidaiaren ostean, lagun talde bat osatu dugu kezka berdinekin, eta egunero, ahalegintzen gera Paranesti atxilo zentroko pertsonek eman ziguten agindutaz oroitzen: ez ahaztu gutaz!! Nobody is ilegal!!!!

Ana Elena Altuna

Udaberriko kanpalekua prest!

Baietz! Udaberriarekin batera Gure Lurrako Aisialdi Zentroak urtero antolatzen duen Kanpalekua badatorrela.

Apirilaren 18tik 22ra bitartean Burgoseko Castrillo de la Vegan arituko gara bizikidetza oinarri, ondo pasatu eta elkarrekin disfrutatzen.

Urtero legez, astialdi hezitzailea sustatzeko helburuarekin, hainbat eta hainbat ekintza ditugu prest haur eta gazte guztiek, 5 egunez, errutina alde batera utzi eta benetako esperientzia aberasgarria bizi dezaten.

Gure konpromisoa, taldekide guztiona, auzoko neska mutilak abiapuntu, benetako bere nahiak eta beharrak asetzen dituen kanpalekua prestatzea da, horretan buru belarri ibiltzen gara aurreko hilabeteetako prestakuntzan.

Honekin guztiarekin, haur eta gazte guztiei gonbidapena helarazi nahi diegu, etor daitezela gogotsu gurekin esperientzia berriak bizitzera!

GURELURRA elkartea
PARTAIDETZA ETA KOMUNITATE-GARAPENA
PARTICIPACIÓN Y DESARROLLO COMUNITARIO

ARIN GRAF, S.L.
INPRENTA
ARIN GRAF
Zalbidea estrata, 13-2.
48013 ZORROTZA - Bilbo
Tel/Fax: 94 441 38 23
info@aringraf.com

MESÓN LUNA
Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak
Itsaski-haztegi propioa
Eguneko menua eta menu hitzartua
Clara Campoamor, 2
48013 Zorrotza
Tel. 94 499 01 30
www.mesonluna.es

FEVE lurpean

Zer egin dezakegu auzokideok instituzioen inplikazioa lortzeko geltokia lurperatzeko bidean?

Igor Gutiérrez

Fernando

Trenbideak kendu edo horrelako sabotaiaren bat... Presioa areagotu. Eta horrela gobernuko baten bat hausnartzen hasiko litzateke.

Carmen

Mobilizazioak areagotu behar dira. Trenak gelditu beharko genituzke. Orain arteko mobilizazioekin indarra egiten da, baina ez behar den bezala

Juan

Manifestazioak areagotu entzunak izan arte. Autobusak Zazpi Landaraino heltzea lortzeko autobidea moztu zela gogoratzen dut. Sekulako iskanbilak sortu ziren, baina helburua lortu zen. Hori da bidea eta ez dago besterik.

Naia

Lehendabiziko gauza, auzotar guztiak inplikatu behar gara. Orain arte egindako mobilizazioetan jende asko egon den arren, jende gehiago egon beharko lukeela uste dut.

Iker

Gure esku dagoen bakarra kalea eta jendea piztea da, zenbait erakunderengana indarrez heltzeko eta presionatu ahal izateko.

cafetxinbo
Espezialitateak:
Tapak eta errazioak
Kanapeak
Abaro estrata, 10
Tel. 94 608 85 74

Regalos Omega
oparidenda
Frai Juan 19
Omega galeriak
Zorrotza
94 482 03 66
www.omegadetalles.com

GURE LUXUA ESKURA
BETAURREKO GRADUATUETAN
2x1
2 ERAMAN
1 ORDAINDU
C/ ESTRADA DE ABARO, 5 | 944 27 40 80
ibarretaluxury
OPTICA

B

Bilbon euskaraz

www.bilbaoeuskaraz.eus

IKUSI ETA IKASI

www.ikusietaikasi.eus

harrapa zank 2017

Harrapatu zure aukera!

Eman izena www.harrapazank.eus webgunean

www.harrapazank.eus

BATZUK

20. korrika

OTXANDIOTIK IRUÑERA

Zorrotzan: Apirilak 6 osteguna, arratsaldeko 16.30ak aldera, Kastrexanatik

www.korrika.eus

EUSKARAZ ERE, NATURALTASUNEZ

Harremanetan euskara naturaltasunez erabiltzea funtsezkoa da zerbitzu ona eman ahal izateko. Euskadiko Kutxan, zurekin euskaraz aritzea ez da aparteko aukera bat, gure nortasunaren eta gure izaeraren berezko ondorioa baizik. Izan ere, geurea zaintzea gustatzen zaigu, geure ezaugarri bereizgarriei eustea eta iraunarazten laguntzea, etorkizuna bermatzeko. Izan ere bada euskara bizitzeko beste modu bat... naturaltasunez.

LABORAL
kutxa